BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

4664

EBAZPENA, 2014ko urriaren 27koa, Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordearena, Konekta Zaitez@Banda Zabala izeneko egitasmoaren barruan, banda zabaleko Interneten sartzeko diru-laguntzak emateko dena.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko uztailaren 11ko Aginduak (EHAA, 147. zk.), Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko otsailaren 18ko Aginduak aldatutakoak (EHAA, 57 zk.), Konekta Zaitez@Banda Zabala Proiektuaren barruan, Interneterako banda zabaleko sarrera-zerbitzuak emateko laguntza-neurriak ezartzen ditu.

Aipatutako aginduan, diru-laguntzetako programa bat eratzen da. Diru-laguntza horien xedekoak dira, hain zuzen ere, banda zabaleko Internetekin konektatzeko, alde batetik, erabiltzaileak behar duen terminal-ekipoa erostea, eta, bestetik, frekuentzia libreetako (WIFI edo antzekoak) bandako puntu-puntu anitzeko hari gabeko teknologietan oinarritutako instalazio kolektiboak eskuratzea. Halaber, diru-laguntza horiek emateko prozedura eta irizpideak arautzen dira eta laguntzen zenbatekoa eta bera aldatzeko prozedura ezartzen dira.

Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordearen 2014ko irailaren 8ko Ebazpenaren bitartez, 2014ko ekitaldirako laguntzei dagokienez guztira aurreikusi den zenbatekoa onartu da. Ebazpen horretan guztira ezarri den zenbatekoa ehun eta hamar mila (110.000) eurokoa da. Ezarritako konponbide teknologikoari dagokionez, erositako ekipo terminal bakoitzeko aleko zenbatekoa berrehun eta laurogeita bat (281) eurokoa izango da.

Halaber, esandako agindu horren 10. artikuluak Itelazpi izendatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren erakunde laguntzaile, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesteko den azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 52. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko uztailaren 11ko Aginduaren 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, eta erakunde laguntzaileak egindako proposamena ikusi ondoren, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Banda zabaleko Internetera sartzeko diru-laguntzen esleipena onuradunei jakinaraztea, Konekta Zaitez@Banda Zabala izeneko egitasmoaren esparruan, honi erantsita doakion eranskinean jasota dauden kopuruetan.

Bigarrena.– Aipatutako 2007ko uztailaren 11ko Aginduaren 13.1. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Itelazpi baltzu publikoak izango du onuradunak jakinarazteko eta operadoreari horien konturako diru-laguntzak ordaintzeko ardura.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen ez duen ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Ogasun eta Finantzetako sailburuari hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko eta erakunde onuradun bakoitzari honako honen berri emateko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 27a.

Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordea,
CARMELO ARCELUS MÚGICA.

ERANSKINA

KONEKTA ZAITEZ@BANDA ZABALA

ONURADUNEN ZERRENDA – ESLEITUTAKO DIRU-LAGUNTZAK

Eskatzailea	Diru-laguntza (eurotan)
1.− Abendibar Zumelaga Pedro	281
2.− Aguinaco Pascual Pedro Maria	281
3.− Ander Rezabal Aizpitarte	281
4.− Astiazaran Olasagasti Juan Luis	281
5.− Azkueta Asua Miren Nekane	281
6.− Balda Etxarte Josune	281
7.− Barral Lopez Yolanda	281
8.− Biotermiak Zeberio 2009, S. L.	281
9.− Bizkaia Sortaldeko Industrialdea, S. A.	281
10.− Calamita Martin Jesus	281
11.− Calvo Foronda Clemente Enrique	281
12.− Da Costa Constan	281
13.− De Oliveira Martin Sergio Manuel	281
14.− Do Santos Perez Fernanda	281
15.− Eizagirre Ibarluzea Juan Cruz	281
16.− Eleta Sieira Aitor	281
17.− Elorza Zubiate Javier	281
18.− Francisco Muga Hernandez	281
19.− Fueltruck Sl	281
20.− Gago Oyanguren Eduardo	281
21.− Garcia Estibalez Eneko	281
22.− Gomez Otxoa Esther	281
23.− Gomez Ruiz Naiara	281
24.− Hernaez Laviña Estibaliz	281
25.− Hernandez Varas Angel	281
26.− Idiakez Zabala Joseba	281
27.− Inchausti Elizondo Manuel	281
28.− Iturralde Txiki	281
29.− Leopoldo Ladron De Guevara Meyer (Farmazia)	281
30.− Lersundi Ugaldea Iñigo	281
31.− Lola Da Silva Edvaldo	281
32.− Lopetegi Etxeberria Juan Jose	281
33.− Marañon Ganzabal Gorka	281
34.− Mari Carmen Urkia Albizur	281
35.− Martin Martin Constancio	281
36.− Metalsai Scoop	281
37.− Obras Y Reformas Zelai	281
38.− Ojanguren Lasa Naxara	281
39.− Pastor Blanco Xabier	281
40.− Rectificados Y Mecanizados V&B S .L.	281

Eskatzailea	Diru-laguntza (eurotan)
41.− Rueda Lopez Endika	281
42.− Ruiz De Alegria Fernandez De Lezeta Juan Jose	281
43.− Saez De Maturana Maza Maria Teresa	281
44.− Saez Orive Avelino	281
45.− Sainz Campo Teresa	281
46.− Salazar Gomez Jose Ramon	281
47.− San Martin Llona Garikoitz	281
48.− Santorum Martinez Alejandro	281
49.− Sastre Rosas Gonzalo	281
50.− Suspergintza Elkartea	281
51.− Torre Larrondo Jose Antonio	281
52.− Ugarte Mendia Dolores	281
53.− Zarandona Ormaechea Rosario	281